BESTELAKO XEDAPENAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

1815

EBAZPENA, 2012ko martxoaren 28koa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena. Honen bidez ebazten da uraren gaian ingurumenaren arlorako prestakuntza eta sentsibilizazioa lantzeko jardueretarako diru-laguntzen deialdia. Diru-laguntza deialdi hori 2011ko abenduaren 20ko Ebazpenaren bidez arautu zen.

Aurkeztu diren espedienteak aztertu dira, aipatutako 2011ko abenduaren 20ko ebazpen horren 7. eta 8. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Agindu horren bidez araututako diru-laguntza horiek lehiaketa bidez esleitu behar dira, Ebazpenaren 9 artikuluari jarraiki, eta hala ezarri baitu Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsitakoak– bere 51.4. artikuluan.

Laguntzak arautzen dituen ebazpenaren 10. artikuluan ezarritako ebaluazio-organoak diru-laguntzetarako eskaerak aztertu eta ebaluatu ditu, Ebazpenaren 11. artikuluan finkatutako irizpideei jarraiki, eta ebazpen-proposamena aurkeztu dit gero. Proposamen horretan, diruz lagundu daitezkeen jarduerak zehaztu dira, bai eta diru-laguntzaren zenbatekoa ere.

Kontuan izan dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsi duena; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea; 2011ko abenduaren 20ko Ebazpena, eta orokorrean zein berariaz aplikatu behar diren gainerako arauak.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusi naizen honek, 2011ko urtarrilaren 20ko Ebazpenaren 12. artikuluak emandako eskumena erabiliz, honakoa

EBAZTEN DUT:

1.– Ebazpen honetako I. eranskinean zehaztuta dauden diru-laguntzak ematea, bertan adierazitako jardueretarako eta bertan zehaztutako zenbatekoan.

Diru-laguntza jaso duten jarduerak 2011ko abenduaren 20ko Ebazpenak ezarritakora egokituko dira, eta ordainketak ebazpen horren 16. artikuluak ezartzen duen bezala egingo dira.

2.– Tan-Tak Elkarteak, Redes de Parques Culturales aurkeztutako eskabidea ez da onartu. Izan ere, ez zen legez eratu eta kasuan kasuko erregistroan inskribatu, gutxienez ebazpen hau argitaratu baino urtebete lehenagotik, beraz, ez dator bat 2011ko abenduaren 20ko Ebazpeneko 3. artikuluan ezarritako dirulaguntzen helburuarekin.

3.– Asociación Española de Ingeniería del Paisaje Elkarteak aurkeztutako proiektua «Asua ibaia birgaitzeko ikerketa, Itsamendikoiren tailer praktikoetan egingo dena» ez da onartu, bi eskabide aurkeztu dituelako eta 2011ko abenduaren 20ko Ebazpeneko 11. artikuluan ezarritakoaren arabera eskabide bakarra aurkeztu ahal delako.

4.– Asociación de Mujeres de Bagabiltza Elkarteari aurkeztutako jarduerei diru-laguntzarik ez ematea, 2011ko abenduaren 20ko Ebazpeneko 5. artikuluan ezarritakoa jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko organoek eta horien erakunde autonomoek lehenago emandako diru-laguntzak justifikatzeke edo itzultzeke edukitzeagatik.

5.– II. eranskinean agertzen diren jarduerei diru-laguntzarik ez ematea, agortu baita diru-laguntzetarako esleitutako aurrekontu-kreditua (2011ko abenduaren 20ko Ebazpena).

6.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen eta honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, hilabete bateko epean, berau jakinarazten denetik, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aurrean.

7.– Ebazpen hau erakunde interesdun bakoitzari jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 28a.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
IÑAKI URRIZALQUI OROZ.

I. ERANSKINA

Diru-laguntzak, 2011ko abenduaren 20ko Ebazpenaren arabera emandakoak

Onuraduna	Diruz lagundutako ekintza	Aurrekontua	Diruz lagundutako ehuneko	Emandako diru-laguntza
Grupo Ecologista Gaia	Ura gure hirian	19.000,00 €	% 70	13.300,00 €
Kuartangoko Udala	Kuartangoko Baias ibaiaren ondare hidrologiko, ekologiko, kultural eta soziala balioan jartzea	14.868,00 €	% 70	10.407,60 €
Nazioarteko Elkartasuna	Uraren Kultura Berri baterantz	23.353,82 €	% 70	15.000,00 €
Alava Agencia De Desarrollo, S.A	Ura aurrezteko politika Goiain Industrialdean.	14.750,00 €	% 70	10.325,00 €
Enkarterriko Udal Mankomunitatea	Sentsibilizazio eta boluntariotza kanpaina Barbadun ibaiaren arroan	18.000,00 €	% 70	12.600,00 €
Espejoko Administrazio Batzarra	Omezillo ibaia Espejotik pasatzerakoan duen egoera hidrologiko, hidromorfologiko, ekologiko eta sozialaren ikerketa eta bere egoera integrala hobetzeko ekintzak	14.514,00 €	% 70	10.159,80 €
Lezoko Unibertsitateko Udala	Lezon, Zubitxo errekaren inguru hidrikoaren ezagutza hobetzeko eta bere balioa azpimarratzeko proposamena	14.750,00 €	% 70	10.325,00 €
Arabako Kontzeju Elkartea	Lurpeko urak, Arabako Iturburu esanguratsu batzuen ezagutzari hurbilketa	14.656,78 €	% 70	10.259,75 €
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla	Urgune 2012	15.555,00 €	% 70	10.888,50 €
Itsas-gela Elkartea	2012ko itsasertzaren inguruko sentsibilizazioa kanpaina	17.000,00 €	% 70	11.900,00 €
Arabako Errioxako Urkidetza	Ur kontsumo arduratsuaren inguruko sentsibilizazio artikuluak	885,00 €	% 70	619,50 €
Enkarterrialde Landa Garapenerako Alkartea	Sentsibilizazio eta boluntariotza kanpaina Barbadun ibaiaren arroan	18.000,00 €	% 70	12.600,00 €
Asociación amasssunu para el impulso de interculturalidad y la biomimesis	Zine Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia Uren Ahotsak	14.575,00 €	% 70	10.202,50 €
Erandio elizateko udala	Erandio eta Bilboko itsasadarra: deskontaminazioaren historia	15.950,00 €	% 70	11.165,00 €
Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea Debegesa Debegesa	Ibailagun 2012 Aulas del río Deba	19.000,00 €	% 70	13.300,00 €
Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoa Urkidetza	Uraren Arloko Ingurumen Prestakuntza eta Sentsibilizazio Plana 2012	39.000,00 €	% 70	15.000,00 €
Bakeaz	Web-gida lantzea: uraren kultura Berriaren baloreak zabaltzea. Espainiako baliabide hidrikoen kudeaketan eta kontserbazioan erreferentzi gisa hartzeko gida	23.747,50 €	% 70	15.000,00 €
Ondarroako Udala	Uraren Hilabetea	2.306,14 €	% 70	1.614,30 €
Vitoria-Gasteizko Udal Urak, A.B	Futura Planaren II. fasean aurreikusirik dagoen uraren erabilpen arduratsuaren diagnosia	43.052,88 €	% 70	15.000,00 €
Busturialdeko Ur Partzuergoa	Ingurumenaren arloko prestakuntza eta sentsibilizazio ekintzak ikastetxeetan, Busturialdeko Ur Partzuergoaren eremuan.	18.223,94 €	% 70	12.756,76 €
Arrazua-Ubarrundiako Udala	Xerolorezaintza ikastaroa	6.490,00 €	% 70	4.543,00 €
Zigoitiako Ur Partzuergoa	Xerolorezaintza ikastaroa eta Perlizadoreen banaketa	2.548,80 €	% 70	1.784,16 €
Etxebarriko Udala	Nerbio itsasadarraren hobetzea Etxebarrin	9.653,31 €	% 70	6.757,32 €
Amurrioko Udala	Inguru hidrikoaren mantentzea eta ur aurrezpena bultzatzeko hiritarren informazio eta sentsibilizazio kanpaina	5.000,00 €	% 70	3.500,00 €

Onuraduna	Diruz lagundutako ekintza	Aurrekontua	Diruz lagundutako ehuneko	Emandako diru-laguntza
	Amurrio udalerriko etxebizitza sektorean			
Aguraingo Udala	Uraren inguruko sentsibilizazio kanpaina ikastetxeetan	3.609,62 €	% 70	2.526,73 €
Tolosako Udala	Tolosa eta uraren kultura berria	5.534,70 €	% 70	3.874,29 €
Legazpiko Udala	Erreka eguna 2012	1.300,00 €	% 70	910,00 €

II. ERANSKINA

Diru-laguntzak, 2011ko abenduaren 20ko Ebazpenaren arabera ez emandakoak, agortu baita diru-laguntzetarako esleitutako aurrekontu-kreditua

Eskatzailea	Proiektua
Kultura kalean! Elkartea	kultURA
Urduñako Udala	Ura aurrezteko sentsibilizazio kanpaina Urduñan herritarrei zuzendua
Asmoz fundazioa	Uraren kudeaketa iraunkorra, arriskuen eta gobernagarritasunaren kudeaketa
Beasaingo Udala	Uraren Cultura
Sestaoko Udala	Ura osasun tanta
Urretxuko Udala	Ingurumen formazio eta sentsibilizaziorako jarduerak
Ayuntamiento de Alegria- Dulantzi	Ikastetxeentzako programa ingurumen sentsibilizazioaren gainean
Ermua hiriko Udala	Ingurumen formazio eta sentsibilizaziorako jarduera proposamena
Donemiliagako Udala	Uraren jarioa denontzat da. Zaindu dezagun
Santurtziko Udala	Ingurugiro ibilaldiak itsasadarrean zehar lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleekin 2012 urtean
Surfrider foundation europe	Ozeaniar ekimenak Euskal Herrian
Asociación española de ingeniería del paisaje	Ibaien inguruko bioingenieria ikastaroa
Ekologistak Martxan	Tantaz tanta, bustitzea. Uraren Kultura Berria. Prestakuntza eta sentsibilizazio programa.
Galdakaoko Udala	Uraren gaian ingurumen prestakuntzarako jarduerak
Oñatiko Udala	Uraren gaiaren inguruko prestakuntza eta sentsibilizazioa.
Asociación cultural 9 de mayo	Klima aldaketa eta baliabide hidrikoen erabilpena kontsumorako: kontsumo ohiturak aztertzeko aukera iraunkorren bila
Elkartasun talde ekologista kima berdea	Birsorkuntza ekologikoa Picon ibaian (Abanto-Zierbana)
Asociación de jovenes empresarios de álava	Gazte enpresarien kolektiboaren artean uraren zentzuzko erabilera eraginkor batengatik
Asociación recreativa eguzkizaleak	Gure ibai eta erriberen egoeraren inguruko informazioa ezagutaraztea
Euskal herriko mugarik gabeko ingeniaritza	Garapen Iraunkorreko eta Uraren Kultura Berriaren inguruko kontzientziazioa EAEko unibertsitateko ikasleei zuzendua.
Zumarragako Udala	Gotagotham Programa - Ur Dastatzea
Elgetako Udala	Sexto erreka garbitu- Errotarako kanala
Usurbilgo Udala	Erriberak garbi auzolana
Suspergintza elkartea	Giza eta heziketa programak aterpetxeetan
Zegamako Udala	Oria Ibaia goi ibilgua (GKL) berreskuratzea eta beratako habitat naturala kontserbatzeko proposamena
Zuiako Udala	Prestakuntza eta sentsibilizazioa uraren inguruan. Xerolorezaintza ikastaroa
Anitzak Elkartea	Granada errekaren lehengoratze ekologikoa eta balioa ematea. Meatzaritzari lotutako erreka baten historia biltzea eta ezagutaraztea.
Amorebieta-Etxanoko Udala	Horniketa eta saneamendu araztegietara bisitak ikastetxeei zuzenduak
Elorrioko Udala	Garaizar ur-araztegira eta Arriaundiko hondakin uren araztegira bisita.
Asociación educativa gaitasuna	Bizkaia: Lurralde iraunkorra. Uraren erabilpena: Hiritarren erronka
Segurako Udala	Oria Ibaia BGL-Natura eta kultura ibilbidea
Asociación foro europa epsilon elkartea	Marrazki eta idazlan lehiaketa: bizi ezazu Ura
Añanako gatz harana fundazioa	Prestakuntza eta sentsibilizazioa hidrogeologikoa Añana.
Cristina Enea Fundazioa	Hidro-Logikak

Eskatzailea	Proiektua
Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal	Prestakuntza eta formazio ekintzak Nerbio eta Ibaizabal ibaietan landare inbaditzaileak kentzeko Planean
Iekorako Udala	Sentsibilizazioa uraren inguruan
Txingudiko zerbitzuak	Txingudiko ura dastatu
Zumaiako Udala	Urola ibaia garbitzeko proiektua 2012
Afonvi, asociación empresarial de fontaneria saneamiento, gas, calefacción y afines de vizcaya	AFONVI-rekin ura aurreztuko duzu.
Andoaingo Udala	Leitzaran Bisitarien Etxean uraren inguruan antolatzen diren sentsibilizazio eta prestakuntza jardunaldiak
Fundación canonica autonoma Ede	Sollube mendiko aldi baterako hezeguneetan konexio hidrikoa eta ekologikoa indartzea
Club deportivo Surf Cabo Billano	Plentzia, Gorliz eta Armintzako ibai eta itsasadarraren garbiketa eta ingurumenarekiko sentsibilizazio programa
Aranzadi zientzia elkartea	Mikrohezeguneak, bizitza makro-an
Alonsotegi eleizateko Udala	Busti zaitez zure herriaren alde
Azti Fundazioa	Ur-App: EAEko 35 hondartzetako bainatzeko uren profilaren bidez uraren arloan dibulgazio-lana egiteko eta ingurumen-sentsibilizazioa bultzatzeko aplikazio mugikor baten garapena
Arabako Foru Aldundia	Egiak eta gezurrak urari buruz eta Ulibarri Gamboako urtegiaren inguruan
Fundación de trabajadores de la siderurgia integral	Zipriztindu zure kontzientzia belaunaldien arteko harremanetik
Asociación cultural eurocampus	HbiO H2O URA
Ecuador Etxea	Klima aldaketaren eragina gure baliabide hidrikoetan.
Zeraingo Udala	Zeraingo Basaltegiko Hezegunea
Arratzuko Udala	Golako ibaiaren egokitze eta garbiketa lanak Arratzuko udalerrian
Asgafal, asociación alavesa de criadores de ganado selecto de raza frisona	Praktika onen gida uraren kontsumo arduratsu bat lortzeko Euskadiko Autonomia Erkidegoko abeltzaintza ustiategietan
Leioako Udala	Gaueko ibilaldiak gure udalerritik: Leioa eta Bilboko itsasadarra Leioa zeharkatzean
Zallako Udala	Kadagua ibaia ezagutu.
Gipuzkoako Urak	Sentsibilizazio kanpaina uraren kultura berria, aurreztea,erabilpen arduratsua eta uraren kalitatearen inguruan